



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_162180/17_12

Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Lege Aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan martxoaren 6an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Lana eta Justizia Saileko Gizarte Ekonomia Zuzendaritzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena otsailaren 15koa da eta, martxoaren 2koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Xedapen Proiektuaren edukiari dagokionez, bi esparrutan aurkitu ditugu hizkuntzei loturiko aipuak.

Lehena 72. artikuluan kokatzen da; honela dio:

72. artikulua. Kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena

1. Estatutuek edo batzar orokorrak finkatutako oinarrizko ildoak aplikatuz, interes publikoko helburu hauetakoren bat izango du soberakinei 70. 2.a artikuluan ezartzen zaien nahitaezko ekarpenak:

d) Euskararen erabilera sustatzea.

Bigarrenak 6. xedapen gehigarriaren eduki osoa hartzen du bere baitan; honela dio:

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA

1.- Arau hau aplikatuta, nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea dute Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin harremanetan jartzen direnek. Bestalde, entitateen betebeharra da aukeratutako hizkuntzan ematea arreta, eta, horretarako, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte.

2.- Era berean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bi hizkuntzak erabiliko ditu barne-funtzionamendu organikoan, egin beharreko dokumentazioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publikoekiko harremanetan.

Bere aldetik 154. artikuluan jasotzen da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua entitate publikoa dela:

154. artikulua. Izaera, osaera eta funtzioak

1. Kooperatibagintza sustatu eta hedatzeko organo goren gisa eratu zen Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua; entitate publiko bat da, eta bere eginkizuna da Euskal Autonomia Erkidego administrazio publikoek kooperatibagintzaaren arloko gaiet buruz egiten dituzten kontsultak jasotzea eta administrazio publiko horiei aholkuak ematea.

Horiek horrela, Lege Aurreproiektuan jasotako hizkuntza alorreko ezarpenak bat datoz oro har indarreko legediarekin.

Halere, uste dugu gomendagarria dela txosten honetan aipatzea, indarreko legediaren eta gaiari buruzko epaien arabera, administrazioen arteko zein barneko komunikazioak ez direla zertan ele-bietan egin; hots, balio osoa dutela bai euskara zein gaztelania hutsezkoak.

Horren adibide, *apirilaren 7ko, 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 6.2 artikulua; honela dio:*

6. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala.

2.– Toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak euskaraz idatzi ahal izango dira. Ahalmen hori baliatu ahal izango da – aipatu berri diren kasuetan–, baldin eta, toki-erakundearen barruan, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein kideren eskubideak urratzen ez badira, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe. Ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idazten direnean, euskaraz bidaliko zaizkie kopiak edo laburpenak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari eta Estatukoari, toki-araubideari buruzko oinarrizko legeriari jarraituz.

Edonola ere, hizkuntza bakar baten aldeko hautua ezingo litzateke arbitrarioa izan; arrazoitua behar du izan (euskararen normalizazioa helburu, adibidez).

Halaber, ez dugu ikusten legezko eragozpenik 6. xedapen gehigarriaren 2. atalean ezarritakoa mantentzeko, borondate hori balego.

Xedapen Proiektuaren III. kapitulua “*Euskadiko Kooperatiben Erregistroa*”ri buruzkoa da.

Kapitulu horretan hizkuntza aipamenik egon ez arren, gogoratu dezagun zer dioen, azaroaren 24ko, 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legearen 7.1 artikulua:

7. artikulua

1. Autonomia Erkidegoaren menpeko erregistro publikoetan, direla Jaurlaritzarenak, bere erakunde autonomiadunenak, foru-administrazioenak, toki-administrazioenak edota besterenak, dokumentuak lerrokatzea dokumentuok idatzita dauden hizkuntza ofizialean egingo da.

Horrekin bat eginez, hona zer dioen indarrean dagoen, martxoaren 29ko, 59/2005 Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen Dekretuaren 20.2 artikulua:

20. artikulua.– Idazpenak nola egin.

2.– Inskribatu beharreko agiriak idatzita dauden hizkuntzan egingo dira Erregistroko idazpenak; Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko bat izango da.

Erakutsi eta/edo egiaztatzeko, aipatutako hizkuntza ofizial horietatik edozeinetara itzuliko dela bermatuko da; interesatuak eskatuta egingo da itzulpena.

Aztertzen ari garen xedapen proiektuaren azken xedapenetako bosgarrenak honela dio bere 2. atalean:

2. Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak Kooperatiba Sozietateen Erregistroari buruzko erregelamendu berri bat onartuko du. Erregelamendu horrek espresuki aurreikusi eta erregulatuko du nola izapidetu elektronikoki erregistro-espeditenteak, eta erregistro-eragiketak sinplifikatuko ditu, betiere zaindu beharreko segurtasun juridikoa zainduz interesdunekiko harremanak errazteko; batez ere, inskripzioak eta inskripzioekin lotutako egintzen gordailua, kontsultei erantzuteko modua eta publizitate formala errazteko.

Erregelamendu berria garatzerakoan kontuan hartu beharko dira hemen aipatutakoak.

Orain arte ikusitakoak administrazioen eta kooperatiben arteko harremanen esparruan kokatzen dira.

Badaude beste bi harreman esparru nagusi zeinetan Lege Aurreproiektuan hizkuntza eskubideei buruzko aipamenik ez den jasotzen:

- a) Kooperatiben eta beraiek osatzen duten bazkide zein langileen artekoak;
- b) Kooperatiben eta herritarren / kontsumitzaileen artekoak.

Honela dio, azaroaren 24ko, 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legearen 5. artikulua

5. artikulua

1. Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

2. Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

3. Herri-aginteeek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Horretaz gain, kontuan hartu behar dugu bazkideen kasuan beraien eskubideak partaide / jabe diren kooperatibarekiko harremanetan langile arruntenak baino askoz zabalagoak direla; horren adierazle garbiak dira Lege Aurreproiektu honetan aitortzen zaizkien eskubideak.

Aldi berean, kontuan hartu behar dugu hizkuntza eskubideak norbanako bakoitzari dagozkiela, bai banan-banako harremanetan zein talde baten baitan jarduten dutenean.

Horiek horrela, komenigarria litzateke jasotzea 23. artikuluan (bazkideen eskubideen artean) edo 6. xedapen gehigarrian (hizkuntza ofizialen erabilerari buruzkoan) bazkideek eskubidea dutela beraien eskura jarri beharreko informazioa beraiek hautatutako hizkuntza ofizialean eskuratzeko.

Aldi berean, kide anitzeko organoen osaeran, organo horien gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko komenigarria litzateke txertatzea 6. xedapen gehigarrian (hizkuntza ofizialen erabilerari buruzkoan) kooperatiba-sozietateek eta beren elkarte-egiturek ahaleginak egingo dituztela kide anitzeko organoen osaeran Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza eskatzeko edota bitartekoak jarri kide bakoitzak nahi duen hizkuntza ofiziala erabili ahal dezan.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Aurretik esan bezala Lege Aurreproiektuan ez dago aipamenik hizkuntza eskubideei kooperatiben eta herritarren / kontsumitzaileen arteko harremanen esparruan.

Xedapen hau lege mailakoa izanik eta, kontuan harturik kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko legedian jasotzen dela erakunde pribatuak arian-arian joan beharko direla hizkuntza betebeharrak bermatzen, oso lagungarria litzateke euskararen normalizazio prozesurako baloratzea (kooperatibak gizarte izaera bereziko erakundeak izanik), herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera, herritarrekiko berariazko hizkuntza betebeharrak ezartzea.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria